EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA — Organismo Autónomo GOBIERNO VASCO

# BERDINTASUNA

NAHIKO! 3-4

3 UNITATE DIDAKTIKOA

# FAMILIAREN KOADERNOA 9



**Familia estimatua:**

Bigarren unitate didaktikoan **Mutilen oka** eta **Nesken oka** ezagutu dituzue. Hau da, ohizko genero ereduek emakumeentzat eta gizonentzat proposatzen dituzten bizitza ibilbide ezberdinak.
Bi bizi-bide hauek erantzukizun ezberdinak erakutsi eta lan ezberdinak egiteko gaitasuna ematen dute ("laranja-erdiak, pertsona-erdiak egiten dituzte), eta baliabide ezberdinak ematen dituzte, orokorrean bizitzarako eta zehazki bikote-harremanetarako (ezberdintasuna, menpekotasuna eta tratu txarrerako arriskua).



Hirugarren unitatean, **Berdintasunaren Oka** proposatzen dizuegu jolas hain injustu eta arriskutsuaren ordez. Nahiz neska nahiz mutilentzat den bizitza ibilbide honek aurreko bi ereduen osagarriak ditu. Helburua hauxe da: bai neskek eta bai mutilek, pertsona garatu osoak izateko, bizitzaren esparru guztietan automiadun pertsonak izateko eta, bizitzan nahiz bikote harremanetan, berdinen arteko harremanak eraikitzeko gaitasuna lortzeko beharrezko ikasketa izan dezatela.





Bizitzarako hautabide hau bat dator Nazio Batuek eginiko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekin. Honen oinarri eta printzipio nagusia, bakea (tratu onak) lortzeko helburua duena, berdintasuna baita, pertsona ororen, emakume eta gizon ororen, duintasun, askatasun eta eskubide berdinen aitorpena.
**Berdintasuna da gakoa.**

## IZENA

# 1 BERDINTASUNAREN OKA JOLASA

## NOLAKO NESKAK ETA MUTILAK, NOLAKO PERTSONAK

Beheko zenbakiak Berdintasunaren Okaren lauki berdeen zenbakiak dira. Lauki hauek, berdintasunaruntz egin beharreko bidea eta heziketa adierazten dute, pausoz pauso. Idatz ezazue lauki bakoitza adierazten duen esaldi bana (ikus adibideak).

## NAHIZ NESKEK NAHIZ MUTILEK

1.

5. Etxeko lanak egiten dituzten pertsona autonomoak dira.

9.

14.

18.

23.

27.

32.

36.

41.

45. 50. 59. Bere bikote harremanak berdintasua eta errespetua ditu oinarri.

63.



ZURE OKA

Idatzi lauki zurietan pertsona osoa eta autonomoa izateko eta berdintasunean bizitzeko gainditu beharrekoak.

ZER IKASI ZER EGIN.

| | |
|---|---|
| ZAINKETA | GIZA ESKUBIDEAK |
| ANISTASUNA | |
| BERDINTASUNA | |

# 2 EMAKUME ETA GIZONEN GIZA ESKUBIDEAK

## BAKOITZARI BEREA

Zuen ustez, zein giza eskubide dira egokiak pertsona hauentzat? Lotu ezazue esaldi bakoitza bi marrazkirekin marren bidez.







1. Gizon eta emakume guztiak aske dira jaiotzez eta berdinak duintasunez eta eskubidez.







2. Inongo sexuzko, arrazazko... bereizkuntzarik gabe.

3. Gizabanako orok badu bizitzarako, askatasunerako eta bere buruaren segurtasunerako eskubidea.







4. Ez da inor jarriko esklabotasun edo morrontzapean.




5. Ez da inor torturapean ezarriko, ez zigorrik ez tratu anker, edo krudelik hari emango.







16. Gizonezko eta emakumezko orok du eskubide ezkontzeko eta familia bat eratzeko, eta eskubide berberak izango dituzte, bai ezkontzak diraun bitartean bai ezkontza deseginez gero ere.







23. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana askatasunez aukeratzeko, lan-baldintza bidezkoak eta langabeziaren kontra babestua izateko.







24. Pertsona orok du atsedenarako eta entretenimendurako eskubidea.




